



Drogei
buruzko
hiztegia

Gaztelania
Euskara

Argitalpena:

2002ko iraila

Aleak:

1.000

Koordinazioa:

Drogamendekotasunei buruzko Dokumentazio Zentroa (DDZ)

Erredakzioa:

Rossetta Testu Zerbitzuak S.L.

Orrazketa:

Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (Haee-IVAP)



Diseinu grafikoa:

Estudio Lanzagorta

Fotokonposizioa eta inprimaketa:

Itxaropena S.A. Araba kalea 45 20800 Zarautz

L.G.: SS-1206/02

Drogei buruzko hiztegia

Gaztelania
Euskara

Hitzaurrea

Drogaren munduari buruzko hiztegitxo honek sortu den unean sortu delako du duen zentzua. Hain zuzen ere, geroz eta testu gehiago ari da argitaratzen euskaraz drogari, drogamendekotasunari eta gai horiekin loturik joan ohi diren beste zenbait gai buruz. Gure gizartean garrantzi handia eta erabateko ondorioak dituen gaia da, inondik ere, drogarena eta drogaren munduarena. Badira, horregatik, gizarte alor horretan bereziki lanean ari diren talde eta erakundeak, badira zuzenean edo zehar bidez droga munduaren arazoak dagozkien eta, horrenbestez, alor horretan eskua duten erakundeak (gizarte zaintza, irakaskuntza, legegintza, osasun zerbitzuak, etab.). Talde horiek

guztiek sortzen dituzte, geroz eta maizago, eskuartean duten gaiari buruzko (drogari eta drogamendekotasunari buruzko) testuak euskaraz.

Ezin esan daiteke, hala ere, orain artean euskaraz egin den komunikazio ahalegin horren emaitza oso oso oparoa izan denik, oraingo. Hain oraingo ere, zeren begien bistan baitago geroz eta material idatzi gehiago ari dela argitaratzen gai honi buruz. Une ego-kia da, horrexegatik, oraingo hau, orain artekoa berrikusi, aztertu, luzera gabe etorriko diren premiak kontuan hartu, eta batetik orain artekoaren laburbilduma eta bestetik aurrerabiderako proposamena izan nahi duen hiztegitxo hau prestatu eta argitaratzeko. Bi ikuspegi horiek baititu, hain zuzen, hiztegitxo honek, bere laburrean.

Batetik, orain arte drogari eta drogamendekotasunari buruz euskaraz idatzi diren testuetan –guztiak ez badira ere, lagin zabal bat bederen: hiru mila orrialde inguru– ageri den terminologiaren hustuketa bat egin da. Terminologia bilketarako erabili den testu corpus horren zatirik handiena testu elebidunez osatua da, gaztelaniaz eta euskaraz testu bera dakarten itzulpenez alegia. Bi arrazoi izan dira horretarako. Batetik, izan ere, testu elebidunak direlako gai honi buruz diharduten testu gehienak. Bestetik, terminologia elebidunez-

ko lanetarako askoz ere erosoagoak direlako, berez, testu elebidunak: errazago aurkitzen baitira baliokideak testu elebidunetako pasarte parekatuak alderatuz, hizkuntza banatan testu multzo desberdinak erabiliz baino.

Horrek guztiak, ordea, besterik ez balitz, hiztegi terminologiko soil bat emango luke, orain arteko idatzien isla. Ez dugu, ordea, hiztegi terminologiko soil bat egin nahi izan, hemendik aurrera ere gai honi buruz etorriko den testugintzarako lagungarri izango den tresna bat baizik. Horregatik, bada, behin terminologia bilketa egin ondoren, beste gogoeta ahalegin bat egin da, bilketaren emaitza aztertu eta osatuz hobetzeko. Ahalegin honek hiru alderdi izan ditu:

- Aurkitutako terminologia zuzentzea eta Euskaltzaindiaren arauetara egokitzea. Hitzen formak egokitzea batez ere: menpe - mende, adibidez, drogamendekotasunen alor honetan bereziki, izenburutik beretik hasita, eratorri asko dituena.
- Gogoeta ahalegin handiagoa eskatu du terminologia sarrera askotarako, testu corpusean aurkitutako baliokideez gainera, beste ordain batzuk proposatzeak. Terminologiaren zentzurik estuenean jokaera hau aski eztabaidagarria baldin bada ere,

kontuan harturik, alde batetik, hiztegi hau ez dela testu corpus baten deskribatzaile soila, baizik eta, horrez gainera, gerora alor honetako gaiet buruz idazten edota itzultzen jardun behar dutenentzat lagungarri izan nahi duela, eta, bestetik, kontuan harturik orobat oraindik ere euskaraz ez dela esistitzen gai hauei buruzko diskurtsu autonomo finkatu bat, horretara bidean dagoela baizik, zilegi ez ezik, komenigarri ere iruditu zaigu hiztegi honetan bildu diren terminologia sarrera askorentzat ordain bat baino gehiago proposatzea, hiztegi honetaz baliatuko den idazle, erredaktatzaile edo itzultzaileak bere diskurtsua egoki antolatzeko aukera errazagoak eta moldagarriagoak izan ditzan.

- Azkenik, gogoeta ahalegin handia egin behar izan da orobat, euskara-gaztelaniazko testu corpusean agertzen ziren sarrera terminologikoez gainera, haien osagarri, beste hizkuntza batzuetan gai honi buruz dauden hiztegietatik beste sarrera zerrenda bat aukeratzeko. Hain zuzen ere, gai hauei buruz euskaraz dagoen testu multzoa, esan bezala, oraindik aski urria delarik, normala da testu horietan ukitzen diren gaiak ere alor honetan erabil daitezkeen guztiak ez izatea, eta,

horrenbestez, testuotan islatzen den terminologia ere urri samarra izatea. Urritasun hori osatzeko, beste zenbait hiztegitatik hartu dira sarrerak, eta euskarazko testu itzulietan haien ordainik aurkitu ezin zitekeenez, hiztegi honen egileek berariaz asmatu dituzten haienezko ordainak. Proposamentzat hartu behar dira, beraz, ordainok, eta proposamen balioa aitortu behar zaie, eta ez ordain terminologiko frogatuarena. Era honetako sarrerak hiztegi honetako sarrera eta azpisarreraren heren bat dira, gutxi gorabehera.

Hiztegiaren izaera

Hiztegitxo honen muga nagusiak bere izaerak berak eraginak dira.

Lehen-lehenik, hiztegi tematiko soila izan nahi du hiztegi honek. Alegia, drogari eta drogaren munduari nolabait dagozkion adierazpenak biltzen ditu. Alde horretatik, bestelako informaziorik ez da jasotzen. Bereziki, bestelako hiztegiengan eman ohi diren gramatikazko eta gisako azalpenak (hitzaren kategoria gramatikala, erabilera eremua, etab.) gutxitan jasotzen dira hemen, eta orobat jaso gabe geratzen dira sarrerek drogari eta droga munduari ez dagozkion bestelako alorretan dituzten esanahiak. Edonola ere, horrelako

azalpenak eman direnean edota laburdurak erabili direnean, kortxete [] artean jarri dira.

Aldi berean, ordea, gai hauei buruz euskaraz idazten dutenentzat lagungarri eta inspirazio iturri izan nahi du hiztegi honek. Horregatik, hain zuzen, sarrera askotan euskarazko ordain asko proposatzen dira, erabiltzailearentzat gogoragarri izan daitezen, eta aukera eremua gehiegi ez estutzeko. Ziur gaude gai hauei buruz euskaraz gehiago idazten eta irakurtzen den ahala, oraindik ere nahi bezain normaldua ez dagoen diskurtso modua normalduz, finkatuz eta mugatuz joango dela, eta hori gertatzen den ahala hiztegi honetan egiten diren zenbait iradokizun soberan geratuz joango dela. Hiztegiaren antolaketari koherentzia eta ulergarritasuna ematearren, sarrera baten azpisarrerak osatzerakoan lehenengo ordaina baino ez da erabili, ordainen esanahia antzekoa denean behintzat, nahiz eta posible izan beste ordainekin ere azpisarrera gehiago osatzea.

Sarreren antolamendua

Sarrera terminologiko guztiak beren erroaren arabera daude antolatuta. Sarrera terminologiko askok azpisarrerak dituzte, elkarren segidan. Sarrera edo azpisarrera bakoitzak edukizko zentzu bat edo gehiago izan ditzake; eduki bat baino gehiago direnetan letra bel-

tzezko zenbakiz bereizten dira ordain multzoak. Ordain multzo bakoitzaren barruan badira, zenbaitetan, azpimultzoak, edo zentzu desberdintasunak, edo hizkuntza mailak mugatuak; halakoetan puntu eta koma (;) erabili da azpimultzo horien bereizgarri gisa. Gainerakoan, sarrera terminologiko baten ordain multzoaren barruan, ordain bat baino gehiago direnean, azaltzen diren ordenaren arabera lehenesten dira ordainok.

Adibide-lekukotasunak

Sarreretan letra etzanez ageri diren adibideak hiztegi hau egiteko erabili den testu corpusetik hartuak dira guzti-guztiak. Esan nahi baita, ez dela adibide bat bera ere asmatu. Honetan zorrozki bete nahi izan da corpusean oinarritutako hiztegia izan nahiak jartzen duen baldintza.

Printzipio hori bete nahiak, ordea, alde batetik deskribapen objektibotasuna ematen dio hiztegiari, baina bestetik desorekatu egiten du hiztegiaren edukia, gai honi buruzko corpus argitaratua *desorekatuta* baitago. Hasieratik esan da euskaraz ez dela askorik argitaratu oraindik gai honi buruz; hiztegi sarrerak beste iturburu batzuetatik ere osatu direnez, normala da hiztegi sarrera batzuetarako beste batzuetarako baino adibide edo lekukotasun multzo handiagoa egotea.

Beste zenbaitetan, berriz, gai hauei buruz idatzita dauden testuen artean dagoen adostasunak berak murrizten du adibide-lekukotasunen kopurua; hiztegi sarrera bati dagozkion ordainen artean adostasun handia bada-go, beste horrenbeste urritzen da lekukotasun premia.

Adibide-lekukotasunak aukeratzekoan, zuzene-nak bilatu dira, baina halakorik ez zenean, dauden dau-denean jaso dira bestelakoak ere, lekukotasunaren zuzentasun edo ez zuzentasunak erakusten zuelakoan lekukotasunaren fidagarritasun maila.

Horrez aparte, zenbait ordain edo adibidetan hitz batzuk izartxo batez (*) markatuta daude. Hiztegi hau egiteko erabili den testu corpusean oso maiz ageri eta arauz kontrakoak edo Euskaltzaindiaren hobespenen kontrakoak direlako ezaugarritzen diren ordainak dira halakoak. Adibidez **menpekotasun* eta horren erato-riak dira testu corpus honetan ageri diren ia forma bakarrak, testu corpus horren puska gehienak Euskaltzaindiak *mende* eta *mendeko* hitzen forma hobetsi aurretikoak edo hobespen hori ezagutu aurretikoak direlako, nonbait. Ez dira, ordea, zuzentzekotzat hartzen diren erabilera guztiak markatu, oso maiz ageri direnak baizik, eta beste erabileraren bat proposatu zaie. Adibide batzuetan, gainera, kortxete etzanen [] artean jarri da zuzen deritzogun aukera.

Eusko Jaularitzako Droga Gaietako Zuzendaritzan uste dugu Hiztegi hau ezinbesteko tresna dela droga arloko esku hartzeak –beti ere normalizazioaren ikuspuntutik– hizkuntzaren ikuspegia ere jasotzeko.

DROGA GAIETAKO ZUZENDARITZA

Kontsultarako erabilitako iturburuak

Hiztegi honetan ageri diren kontzeptuak argitzeko, eta ordainak aukeratzeko, euskara, gaztelania, frantses eta ingeles hiztegi ezagunenez gainera, beste hiztegi berezitu batzuk ere erabili dira:

Askoren artean. *Enciclopedia de la psicología y pedagogía*. Ed. Sedney-Lidis. Madril, 1984.

Askoren artean. *Manual del residente de Psiquiatría*. Ed. Smithkline Beecham.

Askoren artean: *Diccionario médico*. 3. arg. Ed. Mason. Bartzelona, 1994.

Askoren artean: *La Psychologie moderne de A à Z*.

Askoren artean: *Medicina y salud*. 12. lib. Ed. Círculo. Valentzia, 1985.

Askoren artean: *The Alcohol and Other Drug Thesaurus*. U.S. Department of Health and Human Services. U.S. Government Printing Office, 1995.

Edex kolektiboa: *ABC de las drogodependencias*. CREFAT - Eusko Jaurlaritz. Bilbo, 1993.

Fencis, Heinz: *Nomenclatura anatómica ilustrada*. 2. arg. Ed. Mason-Salvat Medicina. Bartzelona, 1989.

Fundación de Ayuda contra la Drogadicción: *Información general para la prevención de drogodependencias*. 2. arg. Madril, 1997.

Haut Comité d'Étude et d'Information sur l'Alcoolisme: *Glossaire d'alcoologie*. Ministère des Affaires Sociales et de l'Intégration, 1991.

Martí Tusquets, J.L. - Murcia Grau, M.: *Conceptos fundamentales de drogodependencias*. Ed. Herder. Bartzelona, 1988.

Smith, Vivian L. et al.: *Prevention Primer. An encyclopedia of alcohol, tobacco, and other drug prevention terms*. Department of Health and Human Services. U.S. Government printing office, 1994.

Corpusaren osaera

Hiztegiaren oinarri izan den testu corpora osatzeko iturburu askotako dokumentuak baliatu dira. Garrantzizkoenak baizik ez aipatzeko:

Eusko Jaurlaritza:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren dokumentuak
- Osakidetzako dokumentuak

Beste zenbait erakunde publiko:

- Arartekoaren urteko txostenak eta txosten bereziak (kartzelak, etorkinak...)
- Zenbait udalen Drogamendekotasunei buruzko planak (Bilbo, Gasteiz...)

Bestelako erakundeen argitalpenak:

- Askagintzaren argitalpenak
- Edex kolektiboa: *Hordago! Drogarik gabe bizitzearen erronka*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1998.
- Droga-menpekotasunen Euskal Behatokia: *Sintesi-Drogak*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1998.

15

Hiztegi honetan erabili diren laburdurak:

Adj. Adjetivo
Biol. Biología
Bot. Botánica
Col. Coloquial
Hab. Uso habitual
Sust. Sustantivo
Med. Medicina

Drogei
buruzko
hiztegia

Gaztelania
Euskara

a

abandono 1. Abandonatze, babesgabete, baztertze, uzte. *Prevenir la aparición o agravamiento de situaciones de maltrato/abandono infantil = Hurrei tratu txarra emateari edo haurrak utzita izateari aurrea hartzen edo halako egoerak txartu ez daitezela laguntzea.* **2.** (Droga; drogari) uzte, lagatze.

abandono de tratamiento Sendabidea uzte, tratamendua uzte.

aborto Abortatze, abortu, haurgaltze.

absentismo Absentismo, hutsegite.

absentismo escolar Eskolara huts egite, eskola absentismo.

abstinencia 1. Aldentze, atzeratze. **2.** Abstinentzia, ez kontsumitze. *Poder expresar lo que sientes y poder defender tus derechos puede hacer que te sientas mejor y se refuerce tu satisfacción por la abstinencia = Sentitzen duzuna adierazi ahal izateak eta zure eskubideak defenditu ahal izateak, hobeto sentiaraz zaitzakete, eta ez kontsumitzeko desioa indar diezazukete.*

periodo de abstinencia Aldenaldi, utzialdi, abstinentzialdi. **Abstinentzi epealdi.*

síndrome de abstinencia Droga faltaren sindrome, abstinentzia sindrome.

abuso

abuso 1. Gehiegikeria. **2.** Bortxa. **3.** (Zerbait) neurritz gain erabili, (zerbait) neurritz gain hartu.

abuso de drogas Drogak neurritz gain hartze, drogen neurritz gaineko kontsumo.

abuso ocasional (Drogak) inoiz neurritz gain hartze.

abuso prolongado (Drogak) luzaro neurritz gain hartze.

abuso regular (Drogak) arruntean neurritz gain hartze; (drogen) neurritz gaineko kontsumo usu.

accesibilidad 1. Hurbiltasun, gertutasun. *La competencia sancionadora se ha atribuido con carácter general a las y los Alcaldes, por tratarse de un órgano administrativo que goza de mayor inmediatez y accesibilidad para la ciudadanía = Zigortzeko eskumena, oro har, alkateen esku utzi da, herritarrengandik gertuago dagoen administrazio-organo bat direlako.* **2.** Irisgarritasun.

acceso [a servicios y prestaciones]

[Zerbitzu eta laguntzak] eskuratzeko aukera, erraztasun; [zerbitzu eta laguntzen] eskuragarritasun, baliagarritasun. *Facilitar el acceso de las personas jóvenes a la oferta institucional = Gazteentzat errazago izan dadila erakunde publikoen eskaintzara iristea. Garantizar el acceso de los ciudadanos a los servicios asistenciales = Herritarrak osasuneko laguntza-zerbitzuez baliatu ahal izan daitezen bermatzea.*

acción 1. Eragin. **2.** Ekintza, ekimen, jarduera.

acción alucinógena Haluzinazio eragin.

acción analgésica Eragin aringarri, eragin baregarri, eragin analgesiko.

acción calmante Eragin aringarri, eragin baregarri.

acción comunitaria Komunitarearen ekintza, gizarte ekintza, erkidego ekintza.

acción contra las drogodependencias Drogamendekotasunen aurka jardute, drogamendekotasunen aurkako ekimen.

acción educativa Hezkuntza ekintza, hezkuntza jarduera.

acción estimulante Eragin bizigarri, eragin bizkorgarri, eragin suspergarri, eragin adore emaile; kemen eragin, adore eragin. ***Estimulante.** *Efecto estimulante = eragin estimulantea.*

acción euforizante Bozkario eragin, poz eragin.

acción excitante Eragin bizkortzaile, eragin asalatzaile.

acción farmacológica Sendagai(en) eragin.

acción hipnótica Hipnosi eragin.

acción narcótica Narkosi eragin, lozorro eragin, eragin narkotiko.

acción paralizante Paralisi eragin, eragin paralizatzaile.

acción popular Herri ekintza, herri ekimen.

acción preventiva Prebentziozko jarduera, prebentziozko ekintza; (zerbaiti) aurrea hartzeko ekintza.

acción psicoactiva de las drogas Drogen eragin psikoaktibo.

acción psicotrópica Eragin psikotropiko.

acción social Ekimen sozial, gizarte ekimen.

aceptabilidad Onargarritasun.

ácido,-a 1. [sust.] Azido. 2. [adj.] Mikatz.

ácido lisérgico (LSD) Azido lisérgiko (LSD).

acompañamiento Laguntze, lagun egite.

actitud

actitud Jarrera.

actitud negativa Jarrera ezkor.

actitud pasiva Jarrera pasibo, jarrera jasankor.

actitud permisiva Jarrera moldaerraz, jarrera barkabera.

actitud represiva Errepresiozko jarrera, jarrera errepresibo.

actividad 1. Jarduera, jardun. **Iharduera*. **2.** Ariketa.

actividad criminal Jarduera kriminal.

actividad física Gorputz ariketa.

actividad sexual Sexu jarduera.

actividad preventiva Prebentzio(zko) jarduera, (zerbaiti) aurrea hartzeko jarduera, (zerbait) ekiditeko jarduera.

actividad profesional Lan.

actividades de ocio Aisia(ko) jarduerak.

actividades ilícitas Legez kontrako jarduerak, legez kanpoko jarduerak; jarduera debekatuak, zilegi ez diren jarduerak, bidegabeko jarduerak.

actuación Jarduera, jokaera, jokabide.

actuación comunitaria Komunitatearen jokaera, erkidegoaren jokaera.

acusación Akusazio, salaketa.

acusación popular Herri akusazio, herri salaketa.

acusado,-a Akusatu, salatu.

adaptación Egokitze, egokitzapen; moldatze.

adaptación al medio Ingurunera egokitze.

adaptación del organismo a la sustancia Organismoa gai batera egokitze.

adaptación social Gizartera egokitze.

adelgazamiento Argaltze, mehetze.

adelgazante Argaltzaile, mehetzaile, argalgarri; mehetzeko gai, argaltzeko gai.

adherencia Itsaspen, atxikimendu.

adherencia al tratamiento Sendabideari zaion itsaspen.

adicción 1. [estado] Zaletasun. 2. [estado] Mendekotasun. 3. [acción] Zaletze.

adicción a las drogas 1. Drogazaletasun. 2. Drogamendekotasun. **Drogramenpekotasun*.

adicción conductual Jokabide (baten) mendekotasun.

adicto,-a 1. Zale, atxiki. 2. Mendeko.

Adicto,-a a las Drogas por Vía Parenteral (ADVP) Zainetatik Sartzeko Drogei Atxikia (ZSDA).

administración 1. Emate, banatze. 2. Hartze. 3. Hornitze.

administración de heroína 1. Heroina emate. 2. Heroina hartze 3. Heroinaz hornitze.

administración inyectable Injektatzeko gaia emate.

administración oral Ahotik hartzeko gaia emate.

admisión 1. Onartze, hartze. 2. Onarpen, onepen. 3. Harrera. *Admisión de menores en establecimientos públicos = Toki publikoetan adingabe-ko pertsonak onartzea.*

admisión hospitalaria Ospitalean onartze.

adolescencia

adolescencia 1. Nerabetasun. 2. Nerabezaro. 3. Nerabeak.

adolescente Nerabe.

adormidera Lo-belar, opio belar (*Papaver somniferum*).

adrenalina Adrenalina, epinefrina.

adulteración Faltsutze, aizuntze.

adulterado,-a Faltsutu, aizundu.

adulto,-a (Pertsona) heldu, nagusi.

ADVP (Adicto,-a a las Drogas por Vía Parenteral) ZSDA (Zainetatik Sartzeko Drogei Atxikia).

afección Gaixotasun, eritasun.

afectividad 1. Afektibitate. 2. Amultsutasun.

afectivo,-a 1. Afektibitatezko. 2. Amultsu, txeratsu.

agente 1. Eragile, -tzaile. 2. Egile.

agente analgésico Analgesia eragile.

agente ansiolítico Larritasunaren baretzaile, larritasunaren baregarri.

agente antidepresivo 1. Depresioaren kontrako eragile. 2. Depresioaren aringarri.

agente antiespasmódico Eragile antiespasmodiko, gihar zimurduraren kontrako eragile, arranparen kontrako eragile.

agente estimulante Eragile bizigarri.

agente hipnótico Hipnosi eragile.

agente psicoestimulante Eragile psikobizigarri.

agente psicoléptico Eragile psikoleptiko; adimena-
naren sorgarri.

agente de la policía Poliziako agente, poliziakide.

agitación **1.** Asaldura, aztoramen, egonezin, kardaba. **2.** Zalaparta. **3.** Larritasun.

agresión Eraso.

agresividad Oldarkortasun, erasokortasun.

agresivo,-a Oldarkor, erasokor.

agresor,-a Erasotzaile.

agudeza Zolitasun, zorrozatasun. *Disminuye la agudeza de las sensaciones = Zentzuen zolitasuna murriztu egiten da.*

25

aguja Orratz.

aguja de inyección Injekzio orratz.

aislamiento Bakartasun, bakardade.

aislamiento social Bakartasun sozial.

**Isolamendu. Aislamiento social de los adolescentes = Nerabeen [bakardade] *isolamendu soziala.*

ajenjo **1.** [bot.] Asentsio-belar (*Artemisia absinthium*). **2.** [bebida] Absintio.

alarma Alarma, kezka.

alarma social Alarma sozial, kezka sozial. *Crece la alarma social ante las drogas y, de manera destacada, ante la heroína = Drogen kontsumoak -batez ere, heroinarenak- kezka larria piztu zuen gizartean.*

alcohol

alcohol Alkohol.

alcoholemia Alkoholemia.

alcohólico,-a **1.** Alkoholdun. **2.** Alkoholiko, alkoholak hartu, alkoholismodun. **3.** Alkoholzale.

Alcohólicos Anónimos Alkoholiko Anonimoak.

alcoholismo Alkoholismo.

alcoholismo crónico Alkoholismo kroniko; behin betiko alkoholismo.

alcoholismo juvenil Gazteen (arteko) alkoholismo.

alienación **1.** [estado] Alienazio. *Alienación (hacer las cosas no por ellas sino por un salario) = Alienazioa (gauzak soldata baten truke egitea, ez gogoz).* **2.** [acción] Alienatze.

alimentación Elikadura; jate.

alimentación y nutrición Elikadura eta nutrizio.

alquitrán Alkaterna.

alta [médica] Senda-agiri.

alta [terapéutica] Senda-agiri terapeutiko.

alteración **1.** Aldaketa, aldakuntza, aldatze. **2.** Gorabehera. **3.** Urduritze, asaldatze, artegatze. **4.** Istilu, iskanbila.

alteración afectiva **1.** Afektibitatearen aldaketa. **2.** Afektibitatearen gorabehera.

alteración circulatoria **1.** Odol zirkulazioaren aldaketa. **2.** Odol zirkulazioaren gorabehera.

alteración de la atención **1.** Aditasunaren aldaketa. **2.** Aditasunaren gorabehera.

alteración de la capacidad de concentración

1. Kontzentratzeko gaitasunaren aldaketa. **2.** Kontzentratzeko gaitasunaren gorabehera.

alteración de la capacidad de juicio 1. Senaren aldaketa. **2.** Senaren gorabehera.

alteración de la conducta alimentaria 1. Jateko jokaeraren aldaketa. **2.** Jateko jokaeraren gorabehera.

alteración de la consciencia 1. Kontzientziaren aldaketa. **2.** Kontzientziaren gorabehera.

alteración de la orientación 1. Orientatzeko gaitasunaren aldaketa. **2.** Orientatzeko gaitasunaren gorabehera.

alteración de la percepción sensorial 1. Zentzumenezko hautematearen aldaketa. **2.** Zentzumenezko hautematearen gorabehera.

alteración de la personalidad Nortasuna aldatze, nortasunaren aldaketa.

alteración de memoria 1. Oroimen aldaketa. **2.** Oroimenaren gorabehera.

alteración del carácter 1. Izaera aldatze, izaeraren aldaketa. **2.** Izaeraren gorabehera.

alteración del comportamiento Jokaeraren aldaketa.

alteración del lenguaje 1. Hizkuntza(ren) aldaketa. **2.** Hizkuntza(ren) gorabehera.

alteración del razonamiento 1. Arrazoimenaren aldaketa. **2.** Arrazoimenaren gorabehera.

alteración del sueño 1. Loia aldatze, loaren aldaketa. **2.** Loaren gorabehera.

alteración intelectual 1. Adimenaren gorabera. **2.** Ulermena aldatze.

alteración mental 1. Adimenaren gorabehera. **2.** Buruko gorabehera.

alteración neurológica Aldaketa neurologiko.

alteración psicopatológica Aldaketa psikopatologiko.

alteración

alteración psicosenorial Aldaketa psikosentsorial.

alteración psicósomática Aldaketa psikosomatiko.

alteración psíquica Aldaketa psikiko.

alteración respiratoria 1. Arnasketaren aldaketa.

2. Arnasketaren gorabehera, arnas estutze.

alteración sensorial 1. Zentzumenen aldaketa.

2. Zentzumenen gorabehera.

alteración somática Aldaketa somatiko.

alteración visual 1. Ikusmenaren aldaketa.

2. Ikusmenaren gorabehera.

alternativa (Bestelako) aukera; hautabide.

alternativa al uso de drogas Drogak ez hartzeko bestelako aukera.

alternativa terapéutica Terapia aukera.

alto riesgo Arrisku handi.

alucinación Haluzinazio.

alucinación auditiva Entzumenezko haluzinazio.

alucinación gustativa Dastamenezko haluzinazio.

alucinación olfativa Usaimenezko haluzinazio.

alucinación táctil Ukimenezko haluzinazio.

alucinación visual Ikusmenezko haluzinazio.

alucinógeno,-a Haluzinagarri, haluzinazio eragile, haluzinogeno.

alucinosis Haluzinosi.

amanita Amanita, lanperna (*ammanita gemmata*, *ammanita pantherina*, *ammanita rubescens*).

ambulatorio,-a 1. [sust.] Anbulatorio, artategi, kontsultategi. **2.** [adj.] Ospitalean egon beharrik gabeko (tratamendu), anbulatorioan hartzeko (tratamendu). *Posibilitar un posterior tratamiento*

ambulatorio = Gero ambulatorioan tratatzea ahalbidetzea.

amotivacional Kemenik ez(a), adorerik ez(a).

analéptico,-a Analeptiko; indargarri, suspergarri.

analgésico,-a Analgesiko; oinazearen aringarri.

análisis Analisi, azterketa.

análisis de aliento Hatsaren analisi.

análisis de orina Gernuaren, pixaren analisi.

análisis de sangre Odolaren analisi.

análisis epidemiológico Epidemiologia analisi; analisi epidemiologiko.

análisis toxicológico Toxikologia analisi; analisi toxikologiko.

andar vacilante Balantzaka ibiltze, zabuka ibiltze, aldaroka ibiltze.

anestesia Anestesia.

anestésico,-a 1. [sust.] Anestesiko. 2. [adj.] Anestesiko, anestesia(zko).

anestésico local Gorputz atalerako anestesiko.

anfetamina Anfetamina.

anfetaminoide Anfetaminoide.

angustia Estutasun, larritasun; estualdi, larrialdi, herstura.

anomalía Eznormaltasun, anomalia.

anomalía congénita Jaiotzatiko eznormaltasun; sortzetiko eznormaltasun.

anomalía

anomalía cromosómica Kromosomen(gatiko) eznormaltasun.

anomalía de la personalidad Nortasun(aren) eznormaltasun.

anomia Anomia; lege gabezia, legerik eza. *Anomia (crisis de valores por encontrarse sin raíces y cambios rápidos en las modas) = Anomia (moda aldatetengatik eta inon erroturik ez aurkitzeagatik sortu den baloreen krisia).*

anómico,-a Anomia(zko).

anorexia Anorexia.

ansiedad 1. Estutasun, larritasun; estualdi, larrialdi, herstura; sosegurik eza. **2.** Antsietate.

ansiolítico,-a Antsiolitiko, sosegagarri.

ansioso,-a 1. Antsia(zko), larritasun(ezko), herstura(zko). **2.** Antsiatsu, estu.

antagonista 1. Antagonista. **2.** Kontrako, aurkako.

antagonista no opiáceo Opiazeoa ez den antagonista.

antagonista opiáceo Antagonista opiazeoa.

antecedente Aurrekari.

antecedente de adicción Mendekotasun aurrekari.

antecedente personal Norbere aurrekari.

antidepresivo,-a 1. Depresio kontrako. **2.** Depresioaren aringarri.

antídoto Antidoto.

antidroga Drogaren aurkako.

apatía 1. Apatia. 2. Geldotasun, gogo gabezia, gogorik ez(a), gogo hiltasun; gogo hil.

apetito 1. Jateko gogo, jangura, jangale, apetitu.
2. Desira.

apnea Apnea.

apoplejía Apoplexia; perlesia, odol kolpe.

apoyo Laguntza, sostengu, berme.

apoyo familiar Familiaren laguntza.

apoyo residencial Egoitza(zko) laguntza.

apoyo social Gizarte(aren) laguntza.

apreciación 1. Hautemate. 2. Balioespen.

apreciación alterada de la realidad Errealitatearen hautemate bihurritu, errealitatearen hautemate nahastu.

31

aprendizaje Ikasketa, ikaskizun, ikaste.

aprendizaje estructurado Ikasketa egituratu.

asertividad Adierazkortasun, baikortasun.

asertivo,-a Adierazpen(ezko); adierazkor.

asesoramiento Aholkularitza, aholku.

asesorar Aholkatu, aholku eman.

asfixiante Itogarri.

asiduidad Maiztasun, jarraikitasun.

con asiduidad Maiz, sarri, usu.

asistencia

asistencia Laguntza, sorospen, helpide.

asistencia especializada Laguntza espezializatu, laguntza berezitu; espezialisten laguntza, adituen laguntza.

asistencia médica Medikuntzako laguntza.

asistencia sanitaria Osasun laguntza.

asistencial Laguntza(zko).

asistente,-a Laguntzaile.

asistente,-a social Gizarte laguntzaile.

asociación 1. Elkartea. *Asociación de Afectados por la Droga = Drogak Eragindakoen Elkartea.*
2. Lotura. *Romper la asociación alcohol-diversión = Alkoholaren eta dibertsioaren arteko lotura haustea.*

aspiración 1. Arnas hartze, arnaste, hasgorapen; xurgatze. **2.** Helburu, jomuga, xede; gogo, irrika, uzi. *Satisface sólo dos aspiraciones sobre cuatro = Lau jomugatik bi baino ez ditu betetzen.*

aspiración nasal Sudurretik arnaste, sudurretik xurgatze.

aspirar 1. Arnasa, hatsa hartu. **2.** Arnasaz hartu, xurgatu. **3.** (Zerbait) nahi izan, desiratu, helburu izan.

atención 1. Laguntza, zaintza, sorospen, helpide, babes, kontu, errekaitsu, **atentzio*. **2.** Adei, adeitasun. **3.** Arreta, ardura, aditasun.

prestar atención 1. Adi egon, begi eman, gogo eman, gogoan hartu. **2.** Zaindu, jagon, begiratu, lagundu. *Prestar atención especial al mundo del deporte = Kirol-munduari aparteko arreta jarri.* *Programa de atención a personas en proceso de inserción con problemas de adicción a drogas =*

Drogazaletasun-arazoak dituzten eta gizarteratzeko bidean diren pertsonen laguntzeko programa. Servicios de atención social al detenido = Atxilotuari laguntza emateko zerbitzuak. Captar la atención (1 - 2 minutos) = Arreta bereganatu (1 - 2 minutu).

atención comunitaria Gizartearen laguntza, komunitatearen laguntza, erkidegoaren laguntza.

atención especializada Laguntza espezializatu.

atención integral Osoko laguntza. *Atención integral de enfermos de SIDA con necesidad de apoyo asistencia = Osasun-laguntza behar duten HIESduneri osotarako laguntza ematea.*

atención médica Medikuntzako laguntza; laguntza mediko.

atención primaria Lehen mailako laguntza.

atención psicológica Psikologia(zko) laguntza, psikologia laguntza. *Atención psicológica = Psicología laguntza.*

atención residencial Egoitza(zko) laguntza, egoitza laguntza. *Atención residencial a personas drogodependientes afectadas por el SIDA = Drogazale HIESdunentzako egoitza laguntza.*

atención sanitaria Osasun laguntza. *Resulta especialmente destacable al respecto el cambio operado en relación a los fines de la atención sanitaria = Nabarmendu beharra dago, bereziki, osasun laguntzaren helburuei dagokienez izandako aldaketa.*

atención social Laguntza sozial.

atrofia Atrofia, endurtze. *Existe una creencia generalizada de que el cannabis produce atrofia cerebral = Cannabisak atrofia zerebrala sortzen duela uste izan da.*

atrofia muscular Giharren atrofia.

aturdimiento 1. Nahasmendu. **2.** Zorabio, burzoraldi.

aturdirse

aturdirse 1. Nahastu. **2.** Zorabiatu, burtzoratu.

autoadministración Nork bere buruari (zerbait) eman; nork bere kabuz (zerbait) hartu.

autoafirmación Nork bere burua finkatze, nork bere burua bermatze.

autoagresión Nork bere buruari erasotze.

autoapoyo Nork bere buruari laguntze, nork bere burua bermatze.

autoayuda Nork bere buruari laguntze; norberaren laguntza. *Grupos de autoayuda sin ánimo de lucro = Nork bere buruari laguntzearen mozkin ateratzeko asmorik gabe diharduten elkar-teak.*

autoconocimiento Nork bere burua ezagutze.

autoconsumo Norberaren kontsumo, nork bere-tik kontsumitze.

autocontrol Norberaren kontrol; norberaren burua kontrolatze. *Fomentando el autocontrol individual = norbere burua kontrolatzea bul-tzatuz.*

autocrítico,-a 1. [sust.] Norberaren buruaren kri-tika. **2.** [adj.] Autokritiko, autokritika(zko).

autodominio Norberaren buruaren jabe izate.

autoempleo Nork bere lana sortze.

autoestima Norberaren estimu, norberaren estimazio, autoestimua; nork bere burua aintzat hartze. *Autoestimas, autonomías y actuaciones positivas = Autoestimua, autonomia eta jarrera onuragarriak. Niveles óptimos de autonomía, autoestima y socialización = Autonomia-, autoestimu- eta gizarteratze-maila egokiak. Baja autoestima = Autoestimu eskasa.*

autogestión Autogestio.

autoinforme Nork bere buruaz egindako txosten; norbere buruari buruzko txosten.

automedicación Automedikazio; nork bere sendabidea jartze, nork bere sendabidea erabakitze.

autonomía Autonomia.

autonomía personal. Norberaren autonomia.

autoridad 1. Aginpide. *La persona responsable del programa puede no tener autoridad suficiente sobre los recursos humanos implicados en su aplicación = Programa arduradunak erabili beharreko giza baliabideen gainean behar besteko aginpiderik ez izatea gerta liteke.*
2. Agintaritzea, agintari. *Sin embargo, los problemas creados por este uso llevaron a las autoridades a controlar legalmente el acceso a esta sustancia = Hala ere, bere erabilerak ekarri zituen arazoan ondorioz, agintariak substantzia lortzeko muga legalak ezarri zituzten.*

autoritario,-a Autoritario, larderiatsu.

autoritarismo Autoritarismo, larderia.

autotratoamiento

autotratoamiento Nork bere buruaren sendabidea erabakitze.

aversión Gorroto, aiherkunde, higuin.

b

bajo umbral Eskakizun apal, eskakizun urri.

barbitúrico Barbituriko.

barbiturismo Barbiturismo; barbiturikoek eragindako pozoidura.

bebedor,-a Edale, edatun, edarizale, edarikoi; [col.] zurrutero, zurrutalari, zintzur-luze.

bebedor excesivo Gehiegizko edale.

bebida Edari.

bebida alcohólica Edari alkoholodun.

bebida sin alcohol Edari alkoholgabe.

belladona Belladona, belaike (*Atropa belladonna*).

beneficiario,-a Onuradun. *Ejercitar la Acusación Popular en los Juzgados contra los máximos responsables y beneficiarios del tráfico de drogas y blanqueo de dinero = Drogen trafikotaren eta diruaren zuriketaren erantzule eta onuradun nagusien aurka Herri Salaketa erabili Epaitegietan.*

benzodiacepina Bentzodiazepina.

bienestar

bienestar 1. Ongizate. *Sociedad del bienestar = Ongizatearen gizartea. Bienestar físico, psíquico y social = Ongizate fisiko, psikiko eta soziala. Dirección de Bienestar Social = Gizarte Ongizate Zuzendaritza. Hábitos básicos de salud y bienestar = Osasun- eta ongizate-ohiturak.* **2.** Aisetasun, aisia.

bienestar social Gizarte(aren) ongizate, gizarte(aren) aisetasun.

bioética Bioetika.

blanqueo [de dinero] Diru zuriketa, dirua zuri-tze. *La política llevada respecto al blanqueo de dinero procedente del tráfico de drogas = Droga trafikotik datorren diruaren zuriketari buruz egin den politika.*

38

boquilla Ahoko; mutur. *Ampliar el agujero de la tetina de manera que la boquilla del cigarrillo quede ajustada perfectamente en la tetina = Egin biberoi-tuttuan zulo handiago bat zigarro-mutur-txoan bertan doi-doi geratzeko.*

borrachera Mozkor, mozkorraldi, hordialdi.

bradicardia Bradikardia.

bronquitis Bronkitis.

bronquitis crónica Bronkitis kroniko, behin betiko bronkitis.

bulimia Bulimia.

C

caballo [col.] Heroína. *Le veía cómo se metía coca, caballo, no sé qué... = Ikusten nuen hartzen kokaina, heroina, eta auskalo zer...*

café Kafe.

cafeína Kafeina.

calada Pipada, zupada. *Aunque alguna vez le ha dado alguna calada a algún porro, en general no le apetece = Porro bat edo besteri zupadaren bat eman badio ere, gehienetan ez du gogorik.*

calidad Nolakotasun, kalitate; [hab.] kalitate on.

de calidad On, egoki, bikain. *Trabajo de calidad = [Lan bikaina] *Kalitatezko lana.*

de mala calidad Txar, kaskar, eskas. *Este alcohol era de dudosa calidad = Alkohol hori [txarra] *kalitate oso txarrekoa zen.*

calidad de la intervención **1.** Esku-hartzearen nolakotasun. **2.** Esku-hartzearen egokitasun.

calidad de vida Bizi kalitate.

calmante

calmante 1. Lasaigarri, sorgarri. 2. Aringarri, baregarri.

camello [col.] Gamelu, droga saltzaile.

campañā Kanpaina.

campañā de prevención (Zerbaiti) bidea kentzeko kanpaina; (zerbait) ekiditeko kanpaina; (zerbait) saihesteko kanpaina; prebentziozko kanpaina.

campañā informativa Informazio kanpaina.

cáncer Minbizi.

cannabinoide Cannabinoide.

cannabis Cannabis.

cannabismo Cannabismo; cannabisak eragindako pozoidura.

caña Garagardo baso, garagardo edontzi, garagardo edalontzi.

cáñamo Kalamu.

capacidad Gaitasun, ahalmen.

capacidad para conducir Gidatzeko gaitasun.

capacidad cognoscitiva Ezagumen.

capacidad creativa Sormen.

capacidad de concentración Kontzentratzeko gaitasun.

capacidad de la memoria Oroimenaren gaitasun.

capacidad de control Kontrolatzeko gaitasun.

capacidad educativa Hezkuntza(zko) gaitasun.

capacidad de juicio Sen, zentzu.

capacidad motora Mugimen gaitasun; higimen gaitasun.

capacitación 1. Gaikuntza. 2. Prestakuntza.
3. [acción] Gaitze; prestaze.

capacitar 1. Gaitu. 2. Prestatu.

cápsula 1. Kapsula. 2. Guruin.

carácter 1. Izaera, aiurri. 2. (-)tasun. *Carácter de neutralidad que se quiere dar a la Prevención = Prebentzioari eman nahi zaion neutraltasun izaera.*

carcinogénesis Kartzinogenesi.

cardíaco,-a Bihotz(eko). *Daña la musculatura cardíaca = Bihotz-muskuluei egiten die kalte.*

cardiopatía Kardiopatia.

cardiovascular Kardiobaskular.

cefalea Zefalea; buruko min.

célula Zelula.

centro Zentro, leku, etxe.

centro de atención a drogodependientes
Drogamendekoentzako laguntza zentro, drogaza-
leentzako laguntza zentro.

centro de consulta Kontsultategi, kontsulta zentro.

centro de desintoxicación Desintoxikazio(rako)
zentro; desintoxikatzeko zentro.

centro de deshabitación Ohitura kentzeko zentro.

centro de día Egune(ra)ko zentro.

centro de enseñanza Ikastetxe.

centro de orientación Orientazio zentro.

centro de recursos Baliabide zentro.

centro

centro de rehabilitación Birgaitze(ko) zentro.

centro de salud Osasun(erako) zentro.

centro de salud mental Buru osasun(erako) zentro.

centro de trabajo Lanleku, lantoki.

centro de tratamiento Tratamendu(rako) zentro.

centro de urgencia Larrialdietarako zentro.

centro escolar Ikastetxe.

centro penitenciario Espetxe, kartzela, presondegi.

centro tutelar Babes etxe, babesteko zentro.

cerebro Zerebro; garun, burmuin.

cesación Gelditze, etete.

cianosis Zianosi.

cirujano,-a Kirurgialari, zirujau.

cirrosis Zirrosi.

cirugía Kirurgia.

clínico,-a **1.** [adj.] Kliniko, klinika(zko). **2.** [sust.] Klinika, eritegi.

cloroformo Kloroformo.

cobertura **1.** Estaldura, helmen. *Cobertura de los programas = Programak noraino heldu diren.* **2.** Erantzun. *La cobertura de las situaciones de necesidad social del drogodependiente = Drogamendekoen gizarte-beharrei erantzutea.* **3.** Babes(pe). *Cobertura ofrecida a los colectivos mas desfavorecidos = Giza talde baztertuenei ematen zaien babesa.*

coca Koka.

cocaína Kokaina.

clorhidrato de cocaína Kokaina klorhidrato.

cocainismo Kokainismo; kokainak eragindako pozoidura.

cocainomanía Kokainomania.

cocainómano,-a Kokainomano, kokainazale.

codeína Kodeina.

codependencia Kidetasunagatiko mendekotasun; senidetasunagatiko mendekotasun; bizikidetasunagatiko mendekotasun; ezkontidetasunagatiko mendekotasun.

código penal Kode penal; zigor kode.

colapso 1. Kolapso; eten(aldi), gelditze, geldialdi.
2. Aldigaizto, alditzar.

colapso cardíaco Bihotzaren etenaldi.

colapso cardiovascular Kolapso kardiobaskular; bihotzaren eta odol hodien baterako etenaldi.

colectividad (Giza-) talde.

colectivo,-a 1. [sust.] Talde, jende multzo.
2. [adj.] Kolektibo; talde bati dagokiona.

colectivo social de riesgo Arriskupeko gizatalde.

Se impulsarán actuaciones orientadas a favorecer la vida asociativa en los colectivos sociales de riesgo = Arriskupeko giza taldeen artean elkartetak sorrarazteko ekintzak bultzatuko dira.

colocado,-a (col.) Pixtu.

coma [med.] Koma.

coma etílico Koma etiliko.

comercialización

comercialización Salmenta.

comisión Batzorde.

comisión ciudadana Herritar batzorde.

Comisión Municipal de Prevención (Zerbaiti) aurre egiteko Udal Batzorde.

Comisión de Drogodependencias Drogamendekotasunei buruzko Batzorde.

comorbilidad Morbilitate bateratu.

competencia 1. Gaitasun, trebetasun. **2.** Eskumen, eskubide.

competencia parental 1. Gurasoen gaitasun. **2.** Gurasoen eskumen.

competencia sancionadora 1. Zigortzeko gaitasun. **2.** Zigortzeko eskumen.

complicación Arazo.

complicación del tratamiento Tratamenduko arazo, tratamenduaren arazo.

componente 1. Osagai. *Los componentes del tabaco y cannabis = Tabakoaren eta cannabisa-ren osagaiak.* **2.** Partaide, bazkide, kide. *Los componentes de la Comisión = Batzordeko kideak.*

comportamiento Jokabide, jokaera, portaera.

comportamiento agresivo Jokabide erasokor.

comportamiento anormal Jokabide anormal, jokabide bitxi.

comportamiento antisocial Jokabide antisozial; jendetasun(ik) gabeko jokabide.

comportamiento compulsivo Konpultsiozko jokabide; jokabide hertsatu.

comportamiento conflictivo Jokabide gatazka-eragile, jokabide gatazkatsu, jokabide liskartsu.

comportamiento criminal Jokabide kriminal.

comportamiento desviado Jokabide desbideratu.

comportamiento infantil 1. Haur(ren) jokabide.

2. Haurraren (gisako) jokabide; umekeria.

comportamiento nervioso Jokabide urduri; urduritasunezko jokabide.

comportamiento de riesgo Arrisku(zko) jokabide; jokabide arriskutsu.

comportamiento sexual Sexu jokabide.

composición Osatze; osaera.

comprensión Ulertze, aditze.

compulsivamente 1. Beharturik, derrigorturik, indarrez. **2.** Bultaka, ezin bestela, kontrolik gabe.

compulsivo,-a 1. Behartu, hertsatu, derrigortu. **2.** Bultazko, ezinbesteko, ezin bestelako, kontrolik gabeko.

comunicación 1. Komunikazio. **2.** Adierazpen, azalpen.

comunidad 1. Elkarte, talde. **2.** Erkidego. **3.** Komunitate. **4.** Gizarte.

comunidad libre de drogas Drogarik gabeko komunitate.

comunidad terapéutica Terapia komunitate.

concentración Kontzentrazio.

concentración de alcohol en la sangre Odolean den alkohol kontzentrazio.

conciencia

conciencia Kontzientzia.

concienciación Kontzientziate, jakitun egite.

conciliación Adoste, bateratze.

condición 1. Baldintza. *¿Qué condiciones deberían darse para que un grupo no se rompa?* = Zein baldintza bete beharko litzateke talde bat ez apurtzeko? **2.** Egoera. *En condiciones lamentables* = Egoera tamalgarrian. *Baldintza tamalgarrietan.

condiciones de vida Bizi egoera, bizimodu. *La mejora de las condiciones de vida, trabajo, vivienda, urbanismo...* = Bizimodua, lana, etxebizitza, hirigintza... hobetze.

condiciones higiénico-sanitarias Higiene(aren) eta osasun(aren) egoera.

conducta Jokaera, jokabide, portaera.

conducta adictiva Mendekotasunak eragindako jokaera.

conducta asertiva Adierazkortasun(ezko) jokae-ra, baikortasun(ezko) jokaera.

conducta de riesgo Arrisku(zko) jokaera; jokae-ra arriskugarri, jokaera arriskutsu. *Programa de reducción de conductas de riesgo* = Arrisku-jokabideak urritzeko programa.

confianza 1. Uste, uste on, konfiantza. **2.** Segurtasun.

confianza en sí mismo 1. Adore, kemen, bipiltasun; bihotz. **2.** Nork bere buruarekiko uste on. *Falta de confianza en sí mismos* = beren buruarekiko konfiantza eza.

conflictivo,-a Liskar(rezko), liskartsu, gatazka(zko), gatazkatsu.

conflicto Liskar, gatazka.

confrontación 1. Aurkakotasun. **2.** Norgehiagoka.

confusión 1. Nahasmendu; nahaspila. 2. Nahaste; oker. 3. Asaldatze.

confusión mental Buru nahasmendu.

conocimiento 1. Jakite, jakitate, jakintza, eza-
guera, ezagutza; ezagupide. *La escuela aporta conocimientos, hábitos y valores = Haurrek ikas-
tetxeetan ohiturak, baloreak eta ezagupideak
jasotzen dituzte. Mejorar el conocimiento del
fenómeno de las drogodependencias = Drogen
mendekotasunen fenomenoaren ezagutza hobe-
tzea. Conocimientos requeridos para la fabrica-
ción de esta sustancia = Substantzia ekoizteko
behar diren ezagutzak.* 2. Konorte.

perder el conocimiento Konortegabetu.

recobrar el conocimiento Konorteratu.

consciencia 1. Kontzientzia, ezaguera. 2. Jakitun
egon. 3. Konorte, ezaguera.

47

consecuencia Ondorio.

consulta 1. Galdera, kontsultatze, kontsulta egite.
*Fase de consulta con las Areas y Servicios
Municipales = Udaleko Sail eta Zerbitzuei kon-
tsultak egiteko fasea. Efectuar la consulta =
Kontsulta egin.* 2. Kontsultategi.

consumidor,-a Kontsumitzaile.

consumidor,-a de drogas Droga kontsumitzaile.

consumir Kontsumitu.

consumo Kontsumo, kontsumitze.

consumo abusivo Gehiegizko kontsumo, neurritz
gaineko kontsumo.

consumo compulsivo Konpulsiozko kontsumo,
bultakako kontsumo.

consumo de alcohol Alkohol kontsumo, alkohol
edate.

consumo

consumo de bebidas alcohólicas y tabaco Edari alkoholadunen eta tabakoaren kontsumo, edari alkoholadunak eta tabakoa kontsumitze.

consumo de drogas Droga kontsumo, drogen kontsumo.

consumo experimental Probatzeko kontsumo, saiatzeko kontsumo.

consumo ocasional Inoiz kontsumitze.

consumo problemático Kontsumo arazo-sortzaille, kontsumo arazotsu.

consumo racional Arrazoizko kontsumo.

consumo recreativo Jostatzeko kontsumo, jaigi-roari loturiko kontsumo.

consumo saludable Kontsumo osasungarri.

consumo sistemático Kontsumo sistematiko.

contagio 1. [acción] Kutsatze. 2. [efecto] Kutsadura.

contrabandista Kontrabandista.

contracción 1. Uzkurtze. 2. Uzkurdura.

contracción muscular 1. Giharren uzkurtze. 2. Giharren uzkurdura.

control Kontrol.

control de la demanda Eskariaren kontrol.

control de la oferta Eskaintzaren kontrol.

control del tráfico Trafikoaren kontrol, salmentaren kontrol.

control social Gizarte kontrol.

control de alcoholemia Alkoholemia kontrol.

convulsión Konbultsio, espasmo, dardara, dardarizo.

crack Crack.

crimen Krimen.

crimen organizado Krimen antolatatu.

criminal [sust.] Kriminal; [adj.] krimen(ezko).

criminalizar Krimen bihurtze, (norbait) kriminal bihurtze.

criterio Irizpide.

criterio de eficacia Eraginkortasun(ezko) irizpide.

criterio de evaluación Balorazioa egiteko irizpide.

cromosoma Kromosoma.

objetivo intermedio Bitarteko helburu, tarteko helburu. *Programas de objetivos intermedios son necesarios (metadona, ...) = Tarteko helburua duten programak (metadona...) beharrezkoak dira. La filosofía de reducción de riesgos y los programas de objetivos intermedios se han convertido en piedras angulares de la asistencia a la persona drogodependiente en la red sanitaria pública actual = Hain zuzen ere, arriskuak gutxitzearen aldeko filosofia eta *helburu ertainetako [bitarteko helburuetako] programak gaur egungo osasun sare publikoan drogazaleari ematen zaion laguntzaren euskarri bihurtu dira. Programas de objetivos intermedios y de reducción de daños = [Bitarteko] *Epe ertaineko helburuak dituzten programak zein kalteak murrizteko programak.*

obnubilación 1. Ikusmena lausotze; ikusmenaren lausoaldi. 2. Sorraldi, soraioaldi.

observación Behatze; behaketa. *Potenciar actitudes y prácticas de observación, reflexión y crítica, renunciando a prescribir modelos de vida = Behaketa, hausnarketa eta kritikarako jokoerak bultzatzea, bizitzeko eredu finkorik*

observación

ezarri gabe.

observación participante Parte hartuz behatze, partaidetzazko behatze.

ocio Aisia, aisialdi.

ocultamiento Ezkutitze; estaltze, gordetze, ostentze.

ocupación 1. Zeregin, lan, eginkizun. **2.** Lanbide. **3.** Betetze.

ocupación del ocio Aisialdia betetze.

ocupación del tiempo libre Astia betetze.

ocupacional Lan(ezko); lanbide(zko). *Fomento de recursos ocupacionales, formativos y laborales = Lanbide, heziketa eta lanerako baliabideen sustapena.*

oferta Eskaintza.

omnipotencia Ahalguzti, guztiahaltasun, guztiahalduntasun, ahalguztiduntasun.

ONG (Organización No Gubernamental)
GKE (Gobernuz Kanpoko Erakunde).

onirismo Onirismo; amets zoraldi.

opiáceo,-a Opiazeo.

opio Opio.

opio bruto Opio gordin.

opio medicinal Medikuntzarako opio, sendagintzarako opio, senda opio.

opio para fumar Erretzeko opio.

opiofagia Opiofagia.

opiomanía Opiomania.

opiómáno,-a Opiomano; opiozale.

oral 1. Ahozko. *La exposición oral deberá durar entre 6 y 8 minutos = Ahozko azalpenak 6 eta 8 minutu bitartekoa izan beharko du.* **2.** Ahotik (hartua...). *Ingestión oral = Ahotik hartzen dira.*

organismo 1. Organismo; gorputz. *Que se dote de una información básica en torno a la sustancia y su mecanismo de acción en el organismo = Sustantziari buruzko oinarritzko informazioa ezezik, gorputzari eragiten dizkion ondorioei buruzko informazioa ere eman.* **2.** Erakunde; *organismo. *Se tiene que implicar a todos los organismos y colectivos sociales de la comunidad = Komunitateko erakunde guztiak inplikatu behar dira.*

organismo popular Herri erakunde.

orientación Orientazio.

orientación social Gizarte orientazio. *Servicios de asistencia y orientación social al detenido = Atxilotuari lagundu eta orientazioa emateko zerbitzuak.*

orientador,-a Orientatzaile, gidari.

p

paciente [sust.] Paziente, gaixo.

paciente ambulatorio Ospitalean egon beharrik gabeko paziente.

paciente hospitalizado Paziente ospitaleratua.

palidez Zurbiltasun, beluritasun, larrumin, histura.

pandemia Pandemia.

pánico Izu, sarrakio, laztura, larrikara, ikara; beldur. *El cannabis te puede provocar un ataque de pánico = Cannabisak beldur-atakea eragin diezazuke. Las reacciones agudas del pánico y ansiedad son los efectos adversos más frecuentes = Izua eta antsietatea izaten dira ohiko eragin kaltegarriak.*

papelina [col.] Papera; dosia.

parálisis Elbarritasun.

par Kide, pare, lagun.

paranoia Paranoia.

parental Guraso(en).

parenteral 1. [Med.] Txegos aparatuz kanpotik sartzeko **2.** [Hab.] Zainetan injektatzen den(a).

paro 1. Geldialdi. **2.** Langabezia.
paro respiratorio Arnas gelditze; arnas geldialdi.

paroxismo Paroxismo; krisiaren gailur; bat-bateko krisi.

partenariado Elkartasun, elkarkidetasun.

participación Parte hartze.

participación social Gizartearen parte hartze, herritarren parte hartze. *Organos de coordinacion y participacion social = Herritarrek parte hartze-ko eta koordinatzeko batzordeak.*

pasotismo [col.] Axolagabekeria, arduragabekeria.

pasta Ore.

99

patología Patologia.

patología asociada Patologia atxiki; albotiko patologia.

patología dual Patologia bikoitz.

patrón 1. Eredu, patro. **2.** Nagusi.

patrón de uso Erabilera eredu.

patrón de abuso Gehiegizko erabileraren eredu.

pauta 1. Arau, lege. **2.** Eredu, jarraibide, era. *Pautas y criterios de actuación en relación a la prevención de drogodependencias = Drogen mendekotasunei aurrea hartzeko jarraibide eta irizpideak.*

pautas de actuación Jokaera eredu. *Pervivencia de los antiguos patrones de abuso y de las consecuencias del mismo observadas antaño = Drogak neurririk gabe hartzeko lehengo ereduak eta horretatik ateratako ondorioek bere hartan diraute.*

peligrosidad

peligrosidad Arrisku, arriskugarritasun. *Concienciar de la peligrosidad del alcohol como una droga = Alkoholak droga gisa duen arriskuaz jabearaztea.*

penalización Zigortze, penalizatze.

penalizador,-a Zigortzaile, penalizatzaile. *Rotundo fracaso de la política penalizadora, la cual no está sirviendo para erradicar el tráfico de drogas = Politika penalizatzailearen erabateko porrota, ez baitu balio drogen trafikoa desagerrarazteko.*

pena [de prisión] Espetxe zigor, kartzela zigor.

penitenciario,-a Espetxe-, kartzela-.

pensamiento 1. Pentsamen(du), gogamen. *Cambios en el pensamiento = Pentsamendu aldaketak. En resumen, sustancia que actúa sobre el cerebro y con capacidad para modificar las funciones del organismo vivo que tienen que ver con el humor, los procesos de juicio y pensamiento, la percepción o la conducta = Laburbilduz, bizidun baten baitan, burmuinean eragiten duen eta aldartearekin, adimen eta pentsamendu prozesuekin, oharmenarekin eta jokabidearekin zerikusia duten funtzioak aldatzeko ahalmena duen gaia da droga. Entre los 12 y los 20 años aparece el pensamiento formal = 12 eta 20 urte bitartean gauzatzen da pentsamendu formala.*

2. Pentsamendu, gogoeta, gogapen, pentsu, burutapen, burutazio, bururakizun, bulko. *Expresar los sentimientos, pensamientos y opiniones = Sentipen, pentsamendu eta iritziak adierazi.*

3. Pentsaera, pentsamendu, pentsamolde. *Cada persona necesita tener un pensamiento propio = Pertsona bakoitzak bere pentsakera behar du.*

4. Asmo. *No hay pensamiento serio de cambio = Ez dago aldatzeko [asmo] *pentsamendu sendorik.*

percepción 1. Hautemate, pertzepzio. **2.** Oharmen. *Los procesos de juicio y pensamiento, la percepción*

o la conducta = Adimen eta pentsamendu prozesuak, oharmena eta jokabidea. 3. Ulertzeko modu, iritzi, uste. Está demostrado que dicha percepción puede incidir en el inicio del consumo = Uste oker horrek gazte asko drogak hartzera bultzatzen du. Fomentar cambios en la percepción social del fenómeno de las drogodependencias = Gizarteak drogen mendekotasunaz duen ustea aldarazteko neurriak bultzatzea.

percepción alterada Hautemate bestelakotu, hautemate aldatu, hautemate bihurritu, hautemate oker. *Tal combinación farmacológica da lugar a una experiencia mixta entre la estimulación y la percepción alterada = Osagai farmakologiko horrek estimulazioa eta pertzepzio okerraren arteko esperientzia bikoitza sorrarazten du.*

percepción gustativa Dastamen(ezko) hautemate.

percepción olfativa Usaimen(ezko) hautemate.

percepción sensorial Zentzumen(ezko) hautemate.

percepción táctil Ukimen(ezko) hautemate.

101

pérdida Galtze; galera.

pérdida de control Kontrol(a) galtze, kontrol(aren) galera.

pérdida de la consciencia 1. Ezagueraren galera
2. Konortea galtze.

pérdida de memoria Oroimen galera, memoria-
ren galera.

pérdida del autocontrol Nork bere buruaren kontrola galtze.

pérdida del sentido de la realidad Errealitatearen zentzua galtze, sena galtze.

perfil Ezaugarriak. *El perfil del paciente no muestra cambios significativos: los pacientes más habituales son los varones de mediana edad = Pazientearen ezaugarriak bagagozkie, ez dago alde nabarmenik: pazienterik ohikoenak adinertaineko gizonezkoak dira. El perfil del consumi-*

perfil

dor fallecido y del consumidor que está infectado de sida coincide mucho con el llamado consumidor crónico = Oso antzekoak dira hildako droga-zalearen ezaugarriak, hiesaz kutsatutako droga-zalearenak eta kontsumitzaile kronikoarenak.

perfil de usuario Erabiltzailearen ezaugarriak.

perfiles de consumo Kontsumoaren ezaugarriak.

pernicioso,-a Kaltegarri.

persistencia Iraupen.

persistencia del uso Erabileraren iraupen.

personal 1. [adj.] Pertsonal; bakoitzaren, norberaren; buruz buruko, aurrez aurreko. *Adquisición de valores personales por el alumnado = Ikasleek balio pertsonalak har ditzatela. Factores personales o familiares de marginación = Bakoitzaren nahiz familia-mailako bazterkeria-alderdiak. Fomentar la capacidad personal y creativa = Norberaren ahalmenak eta sormena sustatzea. Entrevistas personales = Buruz buruko elkarrizketak. Entrevistas personales y postales = Aurrez aurre zein posta bidez egindako elkarrizketak.*

2. [sust.] Langileak. *Personal sanitario = Osasun-alorreko langileak.*

personal auxiliar Langile laguntzaileak.

personal especializado Langile espezializatuak.

personalidad Nortasun. *La estructura de la personalidad está en pleno desarrollo = Nortasunaren egituraketa garapen osoan dago. Una persona dentro de un grupo expresa su propia personalidad y de la interacción con el resto de las personas se crea una personalidad de grupo = Kide bakoitzak bere nortasuna xertatzen dio taldeari eta guztien arteko eraginak ematen dio nortasuna taldeari. Problemas de personalidad = Nortasun arazoak.*

personalismo Pertsonalismo, norbere(koi)keria.

Hay que evitar protagonismos y personalismos = Protagonismo eta pertsonalismoak ekidin behar dira.

peyote Peiote (*lophophora williamsi*).

piso de acogida Harrera etxe, aterpe. *Apoyo al mantenimiento y creación de pisos de acogida (pisos de apoyo a tratamiento y pisos de reinserción) = Harrera etxeak (tratamendurako lagun-garriak eta gizarteratzeko etxebizitzak) sortu eta iraunarazteko laguntza.*

placer Atsegin, plazer.

búsqueda de placer Atsegin bilatze, atsegin bilaketa. *Búsqueda de placer, de euforia, de tranquilidad = Plazer, euforia eta lasaitasun bila. Búsqueda de placer, de relajación o de euforia = atsegin, lasaikuntza edo alaitasuna bilatzea.*

103

plan Plan, egitasmo.

plan de actuación Jarduera plan, esku-hartze plan. *Plan de Actuación sobre Drogodependencias para Euskal Herria = Euskal Herrirako Droga-mendekotasunei buruzko Jarduera Plana. Organización de Jornadas para presentar el Plan de Actuación = Esku-hartze Plana aurkezteko Jardunaldiak antolatzea.*

plan de atención a las drogodependencias Drogamendekotasunen arreta hartzeko plan.

plan de intervención Esku hartzeko plan. *Plan de intervención de drogodependencias en la empresa = Enpresan, drogen mendekotasunen gaian esku hartzeko plana.*

plan de prevención Prebentzio plan, (zerbaiti) aurrea hartzeko plan. *Plan de prevención específica e inespecífica de las drogodependencias = Drogamendekotasunei buruzko prebentzio egitasmo espezifikoa eta inespezifikoa.*

plan

plan estratégico Estrategia(zko) plan, plan estrategiko.

plan de salud Osasun plan.

plan municipal Udal plan.

plantación 1. Landatze, landaketa. 2. Sail, alor.

población Biztanleria; biztanleak.

población de riesgo Arriskuan dagoen biztanleria.

población adulta Pertsona helduak.

policonsumo Droga anitz kontsumitze, droga anitzen kontsumo.

polimedicación Polimedikazio; botika asko hartze.

polineuritis Polineuritis.

político,-a 1. [sust.] Politikari. 2. [sust.] Politika. 3. [adj.] Politika(zko).

política de actuación Esku hartze(ko) politika, jardun politika. *Políticas de actuación en materia de drogodependencias = Drogen Mendekotasunei buruzko arlorako jardun politika.*

politoxicomanía Politoxikomania; droga anitzen mendekotasun.

politoxicómano,-a Politoxikomano; droga anitzen mendeko.

poliuso de drogas Droga askoz baliatze.

polvo Hauts.

portador,-a [de enfermedad] [Eritasun] eroale, eramaile, garraiatzaile, zabaltzaile.

portador asintomático Sintoma gabeko eroale.

posesión Edukitze.

posesión ilegal de drogas Drogak legez kanpo edukitze.

potenciación Indartze. *Potenciación de actividades alternativas para los jóvenes durante los fines de semana = Gazteek droga-kontsumoaren ordez asteburuetan aukeran dituzten jarduerak indartzea.*

precio Salneurri, prezio.

precursores [de drogas] [Droga] Aitzindariak, aurrelariak.

predisposición Aldez aurretiko jarrera; joera, jaidura, isuri. *Toda creencia es una predisposición a la acción = Uste guztiak ekintzarako aldez aurretiko jarrera dira.*

predisposición al consumo de drogas Drogak kontsumitzeko aldez aurretiko joera; drogetarako joera.

prescripción Agindu.

prescripción facultativa Medikuaeren agindu.

preservativo Preserbatibo. *Compartir jeringuillas o tener relaciones sexuales sin preservativo = Xiringak elkarbanatzea edo sexu harremanak preserbatiborik gabe izatea.*

presión Presio.

presión arterial Arterietako presio.

presión del grupo afín Kide taldearen presio.

prestación Laguntza.

prestación económica Diru laguntza. *Programa de atención a personas en proceso de inserción con problemas de adicción a drogas: prestaciones económicas = Drogazaletasun-arazoak dituzten eta gizarteratzeko bidean diren pertsonen laguntzeko programa: [diru laguntzak] *prestazio ekonomikoak.*

prevalencia

prevalencia 1. Nagusitasun, lehenetasun. **2.** Errotze, errotasun, erro, sustrai, presentzia. **3.** Proportzio.

prevalencia de uso 1. Erabileraren nagusitasun. **2.** Erabileraren errotze. **3.** Erabiltzaile proporzio.

prevención Prebentzio; (zerbaiti) aurrea hartze, (zerbait) ekidite, (zerbaiti) bidea kentze.

prevención comunitaria Komunitatean (drogamendekotasunari) aurrea hartze. *Prevención comunitaria de las drogodependencias = Komunitatean drogen mendekotasunei aurrea hartzea.*

prevención de abuso Neurritz gaineko kontsumari aurrea hartze.

prevención de drogodependencias Drogamendekotasunei aurrea hartze.

prevención del alcoholismo Alkoholismoari aurrea hartze.

prevención del alcoholismo juvenil Gazteen arteko alkoholismoari aurrea hartze.

prevención de recaídas Berriz hastea ekidite; berriz ez hasteko prebentzio.

prevención de riesgos Arriskuei aurrea hartze, arriskuak ekidite. *Políticas de sensibilización y prevención de riesgos = Drogen arriskuez sentikortzeko eta arrisku horiei aurrea hartzeko politikak.*

prevención específica Berariazko prebentzio, (zerbaiti) aurrea hartzeko berariazko jarduera.

prevención inespecífica Orotariko prebentzio.

prevención primaria Lehen mailako prebentzio.

prevención secundaria Bigarren mailako prebentzio.

prevención terciaria Hirugarren mailako prebentzio.

principio 1. Hasiera. **2.** Hastapen, printzipio. *Principios de un Estado Democrático de Derecho = Zuzenbideko Estatu Demokratiko baten printzipioak.* **3.** Osagai.

principio activo Osagai aktibo.

principio psicoactivo Osagai psikoaktibo. *Forma de actuación de los principios psicoactivos = Osagai psikoaktiboen jokaera.*

prisión Espetxe, kartzela, presondegi.

privación Kentze.

privación de libertad Askatasuna kentze.

procedimiento Prozedura.

procedimiento de admisión Harrera prozedura, onarpen prozedura.

procedimiento legal Legezko prozedura.

proceso Prozesu, bide, aldi.

proceso de inserción social Gizarteratze(ko) bide. *Personas en proceso de inserción con problemas de adicción a drogas = Drogazaletasun-arazoak dituzten eta gizarteratzeko bidean diren pertsonak.*

proceso de rehabilitación Birgaitze prozesu, osatze prozesu, sendabide. *Personas en proceso de rehabilitación = Sendabidean dauden pertsonak.*

proceso de reintegración social Gizarteratze(ko) prozesu.

proceso de socialización Sozializazio bide, gizarteratze(ko) bide, gizartekotze bide.

proceso bioquímico Prozesu biokimiko.

producción Ekoizpen, produkzio.

producción clandestina Ezkutuko ekoizpen.

producto Produktu, gai.

producto adelgazante Argaltzaile, mehetzaile; mehetzeko produktu, argaltzeko produktu.

producto farmacéutico Farmazia(ko) produktu.

producto ilegal Legez kanpoko produktu.

producto legal Legezko produktu.

profesión

profesión Lanbide.

profesional 1. [adj.] Lanbide(zko), lan-. *Mayor nivel de estudios y cualificación profesional = Ikasketa-maila zein lan-kualifikazio handiagoa.*
2. [sust.] Profesional, aditu.

programa Programa, egitarau.

programa piloto Ereduzko programa.

programa ambulatorio Programa ambulatorioa, ospitalean egon beharrik gabe egiteko programa.

programa de actuación Jarduera programa.

programa de bajo umbral Eskakizun apaleko programa, eskakizun urriko programa.

programa de educación para la salud Osasunerako heziketa programa.

programa de desintoxicación Desintoxicazio programa.

programa de intercambio de jeringuillas Xiringa truke(ra)ko programa.

programa de mantenimiento Mantentzeko programa.

programa de objetivos intermedios Bitarteko helburuzko programa.

programa de prevención y denuncia Prebentzio eta salaketa programa.

programa de promoción de salud Osasunaren sustapen(erako) programa.

programa de reducción de daños Kalteak gutxitzeko programa, kalteak murrizteko programa.

programa de rehabilitación Birgaitzeko programa, errehabilitaziorako programa.

programa de sustitución Ordezkatze programa, ordezkapen programa.

programa de tratamiento Tratamendu programa.

programa libre de drogas Droga(rik) gabeko programa.

programa residencial Egoitza(zko) programa.

prohibición Debeku, galarazpen.

pronóstico Pronostiko, iragarpen. *Después del ejercicio se le pide que establezca un segundo pronóstico para el siguiente = Ariketa eginda gero hurrengoarentzako iragarpen berri bat egiteko eskatuko zaio.*

propagación Zabaltze, hedatze, zabalkunde.

propaganda Propaganda.

proselitismo Proselitismo, jarraitzaile bilaketa.

prostitución Prostituzio.

protección Babes(te), geriza(tze); zaintze, zaingo.

protección civil Herrizaingo, herri babes. *Ley de Protección Civil = Herri Babesari buruzko Lege.*

protección de la salud Osasunaren babes.

protección de menores Adingabeen babes.

protección ciudadana Herritarren babes. *Servicio de protección ciudadana = Herritarren babeserako zerbitzua.*

prueba 1. Proba, saio. **2.** Froga, egiaztabide.

prueba de alcoholemia Alkoholemia proba.

pseudoalucinación Pseudohaluzinazio, haluzinazio aizun.

psicoactivo,-a Psikoaktibo.

psicoanálisis Psikoanalisi.

psicodrama

psicodrama Psikodrama.

psicofarmacología Psikofarmakologia.

psicofármaco Psikofarmako. *Conseguir que el 60% de las participantes consuman psicofármacos únicamente por prescripción facultativa = Parte-hartzaileen %60k, medikuaren aginduz baik ez ditzatela psikofarmakoak hartu.*

psicología Psikologia.

psicomotor,-a Psikomotore.

psicomotricidad Psikomotrizitate.

psiconeurosis Psikoneurosi.

psicópata Psikopata.

psicopatología Psikopatologia.

psicosis Psikosi.

psicosis alcohólica Psikosi alkoholiko.

psicosis de Korsakoff Korsakoffen psikosi.

psicosis esquizofrénica Psikosi eskizofreniko.

psicosis orgánica Psikosi organiko.

psicosis por anfetaminas Anfetaminen eraginezko psikosi, anfetaminek eragindako psikosi.

psicosis por cannabis Cannabisaren eraginezko psikosi, cannabisak eragindako psikosi.

psicosis por privación Gabeziazko psikosi, gabeziak eragindako psikosi.

psicosis producida por drogas Drogen eraginezko psikosi, drogek eragindako psikosi.

psicosis residual Hondar psikosi.

psicosis tóxica Psikosi toxiko.

psicoterapia Psikoterapia.

psicoterapia de grupo Talde(ko) psikoterapia.

psicoterapia individual Banakako psikoterapia.

psicotropo Psikotropo.

psiquiatra Psikiatra.

pulsación Taupada.

pupila Begi nini, ninika, betsein.

pureza Garbitasun, araztasun, xahutasun.
de gran pureza Ia huts.

r

ralentización Geldiagotze.

ralentización de las pulsaciones Taupadak geldiatote.

raya [de cocaína] [Kokaina] arrasto.

razonamiento Arrazoimen; arrazoiketa, arrazoibide.

reacción Erreakzio; erantzun.

reacción aguda Bat-bateko erreakzio, erreakzio bortitz.

reacción psicótica Erreakzio psikotiko.

reacción psicotóxica Erreakzio psikotoxiko.

realidad Errealitate.

recada **1.** Berrero erortze, berrero haste. **2.** Berrero gaixotze.

receptividad Harmen, harkortasun.

receta Errezeta.

receta falsificada Errezeta faltsutu.

receta médica Sendagilearen errezeta.

recidivismo Berriz erortzen direnen tasa, berriz gaixotzen direnen tasa.

reconocimiento 1. Ezagutza. **2.** Azterketa, miaketa.
reconocimiento médico Medikuaeren azterketa, sendagilearen azterketa.

recurso Baliabide, bitarteko.

recurso asistencial Laguntza baliabide.

recurso comunitario Komunitatearen baliabide, erkidegoaren baliabide.

recurso de tiempo libre Aisialdirako baliabide.

recursos de tratamiento Tratamendu baliabide.

red Sare.

red de servicios Zerbitzu sare.

red de suministro de drogas Droga hornidurako sare, drogaz hornitzeko sare.

reducción Gutxitze, urritze, murritze.

reducción de daños Kalte(ak) gutxitze.

reducción de la demanda Eskari(aren) gutxitze.

reducción de la oferta Eskaintza(ren) gutxitze.

reducción de riesgos Arrisku(ak) gutxitze. *De hecho, uno de los beneficios que se buscan con los programas de reducción de riesgos es precisamente éste: la reducción de la delincuencia = Delinkuentzia urritzea da, hain zuzen ere, arriskuak murrizteko programen helburuetariko bat.*

reducción del consumo Kontsumoa gutxitze; gutxiago kontsumitze.

reestructuración Berregituratze, berregituraketa.

reflejo 1. Isla, islatze, ispilatze. *El sistema educativo es siempre un reflejo de la sociedad a la que pertenece = Hezkuntza gizartearen barruan dagoenez, eta bertako osagai bat denez, horren isla da.* **2.** Erreflexu. *Tomar alcohol afecta la*

régimen

capacidad de juicio y ralentiza los reflejos = Alkohola hartzeak adimenaren gaitasuna murrizten du eta erreflexuak moteltzen ditu.

régimen Erregimen.

régimen sancionador Zigor erregimen.

registro 1. Miaketa, arakatze, araketa. **2.** Erregistro.

Registro Municipal de Asociaciones = Udaleko Elkarteak Erregistroa.

rehabilitación Birgaitze, osatze, sendabide.

Drogodependientes en proceso de rehabilitación = Birgaitzeko bidean diren drogazaleak. Personas en proceso de rehabilitación = Sendabidean dauden pertsonak.

rehabilitar Birgaitu, osatu, sendabidean jarri.

reincidencia Berrerortze, berriro erortze, berriro

aritze. Sanciones de hasta 50.000 pesetas que pueden agravarse en caso de reincidencia = 50.000 pezetakoak ere izan daitezkeen zigorrak, zigor horiek larritu edo handitu egin daitezkeelarik, berriro araua /legea hautsiz gero.

reincidente Berrerorle.

reinserción [social] (Ber)gizarteratze.

reintegración (Berriro) itzultze, -ratze.

relación 1. Harreman, zerikusi, erlazio. *Reglas de*

convivencia que la propia comunidad genera para mejorar las relaciones entre sus miembros = Komunitateak berak kideen arteko harremanak eta bizikidetzak hobetzeko arau moduan. La peligrosidad o la inocuidad del cannabis no guarda ninguna relación con su origen natural = Cannabisa kaltegarria izateak edo kaltegarria ez izateak ez du zerikusirik naturala izatearekin. Se aprecia una

relación cronológica = Badago erlazio kronologikoa. 2. Zerrenda. Relación de frases que recogen las razones que esgrimen l@s chic@s para justificar su consumo de bebidas alcohólicas = Neska-mutilek alkoholdun edariak edatea justifikatzeko azaltzen dituzten arrazoien zerrenda.

relación familiar Familia barneko harreman, familiarekiko harreman. *Problemas de violencia, agresividad, malas relaciones familiares = Biolentzia eta oldarkortasun arazoak, familiarekiko harreman gaiztoak.*

relación personal 1. Pertsonen arteko harreman, harreman pertsonalak. *Predominan las relaciones personales espontáneas con una interacción directa y frecuente, afectiva = Berezko harreman pertsonalak dira nagusi eta elkarreagina zuzeneko eta maizkoa da. 2. Lagunak, lagunartea. Búsqueda de un nuevo círculo de relaciones personales = lagunarte berri bat bilatzea.*

relación sexual Sexu harreman. *Relaciones sexuales no protegidas = Babestu gabeko sexu harremanak. Desinhibe, pero interfiere en la relación sexual = Ausardia ematen du baina eragina du sexu harremanetan.*

relación pública Jendearekiko harreman.

relajación Lasaitze, laxatze; erlaxazio. *Cursos de relajación y de control del estrés = Erlajaziorako eta estresaren aurkako ikastaroak.*

relajante Lasaigarri.

relajar Lasaitu, laxatu, erlaxatu.

reorientación Berriro orientatze; zuzentze, artezte, bideratze.

representación Iritzi, uste, irudi.

representación social de las drogas Drogen irudi sozial.

represión

represión Zapaltze, itoarazte, errepresio.

residencia **1.** Egoitza, etxe. **2.** Bizileku, bizitoki, bizitegi.

resina Erretxina.

resina de cannabis Cannabis erretxina.

responsabilidad Erantzukizun. *Que los jóvenes debatan, reflexionen sobre temas de interés para adquirir habilidades, fomentar la responsabilidad personal, etc.* = Gazteek eztabaida dezatela, hausnar dezatela gaitasunak hartzeko, norberaren erantzukizuna sustatzeko eta abarretarako interesgarri diren gaiiei buruz.

resultado Emaizta; ondorio. *El profesor anima a los adolescentes a pasar este test a sus padres y madres y discutir los resultados con ellos* = Irakasleak ikasleak test hau beren gurasoei agertzera bultzatuko ditu eta ondorioak haiekin eztabaidatzera.

retención **1.** Edukitze, atxikitze. **2.** (Gogoan) edukitze. **3.** Atxilotze.

revisión Azterketa, berrikuspen.

revisión bibliográfica Bibliografia berrikuspen.

riesgo Arrisku.

riesgo laboral Lan(eko) arrisku. *Ley 31/1995 de Prevención de Riesgos Laborales = Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legea.*

risa Barre, irri.

risa compulsiva Barre behartu, barre hertsatu.

risa espasmódica Espasmo(zko) barre.

ritmo Erritmo.

ritmo cardíaco Bihotzaren erritmo.

ritmo respiratorio Arnasaren erritmo.

rito Erritu.

rito de iniciación Sarrera erritu.

ruta Bide.

ruta de tráfico Trafiko(aren) bide.

S

sala Gela, areto.

narcosala Narkogela, injektatzeko gela.

sala de fiesta Dantzaleku.

salud Osasun.

salud mental Buru osasun.

salud pública Osasun publiko. *Las leyes vigentes en materia de drogodependencias tienen como principal pretensión velar por la salud pública = Droga-mendekotasunak direla-eta indarrean dau-den legeek helburu nagusizat osasun publikoa jagotea dute.*

sanción 1. Zigor, zehapen. **2.** Berrespen, berreste.

sanción penal Zigor penal.

sancionador,-a 1. Zigortzaile, zehatzaile; zigor-

La regulación de un régimen sancionador = Zigor-erregimen bat arautzea. 2. Berresle.

sancionar 1. Zigortu, zehatu. *Tramitación de procedimientos sancionadores = Zigortzeko prozeduren izapideak. 2.* Berretsi.

sangre Odol.

sanidad Osasun (publiko).

sanitario,-a 1. [adj.] Osasun-. 2. [sust.] Osasun langile.

sedación 1. Baretze, lasaitze, sosegatze. 2. (Oinazeak) eztitze, arintze.

sedante 1. Baregarri, lasaigarri, sosegagarri. 2. Eztigarri, aringarri.

seguimiento Segimendu, jarraipen. *Seguimiento clínico-sanitario* = *Osasunaren segimendu klinikoa*.

seguridad 1. Segurtasun. 2. Ziurtasun.

seguridad ciudadana *Herritarren segurtasun. Dirección de Seguridad Ciudadana* = *Herritarren Segurtasunerako Zuzendaritza*.

sensación Sentipen.

sensación de bienestar Ongizate sentipen.

sensación de desagrado Atsekabe sentipen, higuin sentipen.

sensación de extrañamiento Arroztasun sentipen.

sensación de insuficiencia Gutxiegitasun sentipen.

sensación de irrealidad Errealtasunik ezaren sentipen, amets sentipen.

sensación de ligereza Arintasun sentipen.

sensación de malestar Ezinegon, ondoez.

sensación de omnipotencia Ahalguztiduntasun sentipen.

sensación de pánico Izu sentipen, laztura sentipen.

sensibilidad Sentiberatasun, sentikortasun; sentimen.

sentencia Epai. *En cumplimiento de la Sentencia del Tribunal Constitucional* = *Konstituzio Auzitegiak emandako epaia betez*.

sentido

sentido 1. Zentzumen. 2. Zentzu.

sentido del espacio Espazioaren zentzu.

sentido del tiempo Denboraren zentzu.

serotonina Serotonina.

servicio Zerbitzu.

servicio de apoyo Laguntasun, laguntza zerbitzu.

servicio de asistencia Sorospen zerbitzu.

servicio de asistencia y orientación social Sorospen eta gizarte orientazioko zerbitzu.

servicio de salud Osasun zerbitzu.

servicio especializado Zerbitzu berezitu.

servicio social Gizarte zerbitzu.

servicio sociosanitario Gizarte eta osasun zerbitzu.

sexo Sexu.

sexo seguro Sexu (harreman) seguru.

120

SIDA (Síndrome de Inmunodeficiencia Adquirida) HIES (Hartutako Immunitate Eskasiaren Sindrome).

síndrome Sindrome.

síndrome alcohólico fetal Umekiaren sindrome alkoholiko.

síndrome de abstinencia Droga faltaren sindrome, abstinentzia sindrome.

síndrome de falta de motivación Kemenik ezaren sindrome, adorerik ezaren sindrome.

Síndrome de Inmunodeficiencia Adquirida (SIDA) Hartutako Immunitate Eskasiaren Sindrome (HIES).

síndrome psicoorgánico Sindrome psikoorganiko.

síndrome tóxico Sindrome toxiko.

sintetizar 1. Laburbildu. 2. Sintetizatu, (zerbaiten) sintesia egin.

síntoma Sintoma.

sintomatología Sintomatologia; sintomak.

sistema Sistema.

sistema circulatorio (Odolaren) zirkulazio sistema.

sistema de inmunidad Immunitate sistema.

sistema glandular Guruin sistema.

sistema nervioso Nerbio sistema, sistema nerbio.

sistema nervioso central Nerbio sistema zentral.

sistema reproductivo Ugal(ketako) sistema.

sistema respiratorio Arnas sistema.

sistema sensorial Zentzumen sistema.

sistema urinario Gernu sistema.

situación Egoera.

situación conflictiva Gatazka egoera; egoera gatazkatsu, egoera liskartsu.

situación de exclusión Baztertuta egote, bazterketa(ko) egoera.

situación de riesgo Arrisku egoera. *Programa de prevención y atención de menores en situación de riesgo = Arriskuan diren adingabeentzat, aurrea hartzeko eta laguntzeko programa.*

situación de exclusión social Gizartetik baztertuta egote, gizarte bazterketa(ko) egoera.

situaciones de presión grupal Taldearen presiopeko egoera.

sobredosis Neurritz gaindiko dosi, gehiegizko dosi. *La sobredosis: consumir más cantidad que la tolerada por el organismo = [Gehiegizko dosia] *Gaindosia: Organismoak jasaten duena baino kopuru handiagoa kontsumitzea.*

sobredosis accidental Ustekabeko neurritz gaidiko dosi.

sobredosis deliberada Berariazko neurritz gaidiko dosi.

socialización

socialización Sozializazio, gizarteratze. *Proceso de socialización y desarrollo personal = Norberaren garapen eta gizarteratzeko prozesua. El grupo de iguales juega un rol central en el proceso de socialización durante la adolescencia = Lagun taldeak rol nagusia betetzen du nerabezaro garaiko sozializazio prozesuan.*

soluble Disolbagarri.

somático Somatiko; gorputzeko.

somnífero Lo eragile; lo (egiteko) pastilla.

somnolencia Logura, logale.

speed [col.] Speed.

sudoración Izerdi.

sueño 1. Lo, loaldi. 2. Logale, logura. 3. Amets.

suicida Suizida.

suicidio Nork bere buruaz beste egite, suizidio.

suministro Hornitze, hornidura.

sustancia Gai.

sustancia alucinógena Gai haluzinagarri.

sustancia de corte Eranskin, emendagai.

sustancia ilegal Legez kanpoko gai.

sustancia legal Legezko gai.

sustancia neurotransmisora Gai neurotransmisorea.

sustancia psicoactiva Gai psikoaktibo.

sustancia psicodélica Gai psikodeliko.

sustancia psicotrópica Gai psikotropiko.

sustancia timotrópica Gai timotropiko.

sustitución Ordezkatze, ordezkapen, ordezpen.

sustitutivo,-a Ordezko, ordezkapen(ezko) (gai).

La tendencia clara es priorizar programas de mantenimiento, con sustitutos, reduciendo los costos y primándose el control social = Joera garbia mantentze programak lehenestea izan, ordezkoz, kostuak gutxituz eta kontrol sozialean eraginez.

t

tabaco Tabako.

tabaquismo Tabakismo; tabako gehiegi erretzeak eragindako intoxikazio.

taquicardia Takikardia.

tasa Tasa, neurri.

tasa de alcoholemia Alkoholemia tasa.

tasa de mortalidad Hiltze tasa, heriotza tasa.

tasa de recaídas Berriz erortzen hasten direnen tasa.

técnico,-a **1.** [adj.] Tekniko. **2.** [sust.] Teknika. **3.** [sust.] Teknikari.

técnica de autoadministración Nork bere buruari (zerbait) emateko teknika; nork bere kabuz (zerbait) hartzeko teknika.

técnica de represión Errepresio(zko) teknika.

técnica educativas Hezkuntza(zko) teknika, hezitze teknika.

temblor Dardara, ikara.

temperatura Temperatura, hozbero.

temperatura corporal Gorputzeko temperatura, hozbero.

tendencia Joera, jaidura, jas.

tendencia suicida Suizidiorako joera.

tendencia toxicomaniaca Drogak hartzeko joera.

tensión 1. Tentsio, urduritasun, larritasun. 2. Presio.

tensión arterial Odol presio.

tensión emocional Emozi(zko) tentsio.

teoría Teoria.

terapeuta Terapeuta.

terapia Terapia.

terapia con antagonistas Antagonista bidezko terapia.

terapia conductista Terapia konduktista, jokiera(zko) terapia.

terapia de comportamiento Jokaera(zko) terapia, terapia konduktista.

terapia de grupo Talde(ko) terapia.

terapia de mantenimiento Mantentze terapia.

terapia de sustitución Ordezkatze terapia, ordezkapen terapia.

terapia familiar Familia(ren) terapia.

terapia grupal Talde(ko) terapia.

terapia individual Banakako terapia.

terapia ocupacional 1. Ariketa bidezko terapia.

2. Lan bidezko terapia. 3. Ergoterapia.

terapia psicodinamica Terapia psikodinamiko.

terapia sin drogas Droga(rik) gabeko terapia.

test Test.

test psicológico Psikologia(zko) test.

tolerancia Tolerantzia.

tolerancia cruzada Zehar tolerantzia.

torpor 1. Zurruntasun. 2. Lozorro.

toxicidad

toxicidad Toxikotasun, pozoitasun.

tóxico,-a Toxiko, pozoitsu, pozoigarri, pozoitzaile.

toxicología Toxikologia.

toxicólogo,-a Toxikologo.

toxicomanía Toxikomania, drogamendekotasun, drogazaletasun, drogarekiko atxikimendu.

toxicómano,-a Toxikomano, droga(-)mendeko, drogazale, drogei atxiki.

trabajo Lan.

trabajo comunitario Komunitate lan, talde lan; erkidegoan oinarrituriko lan.

trabajo de campo Gertaguneko ikerlan.

trabajo en común Elkarlan.

trabajo social Gizarte lan. *Escuela Universitaria de Trabajo Social = Gizarte Lanaren Unibertsitate Eskola.*

tracto Hodi.

tracto digestivo Txegos hodi.

traficante Salerosle, trafikatzaile.

traficante de drogas Droga salerosle, droga trafikatzaile, narkotrafikatzaile.

traficar Trafikatu, salerosi.

tráfico Trafiko, salerosketa.

tráfico ilícito Legez kanpoko trafiko.

tráfico ilícito de drogas Legez kanpoko droga trafiko.

tráfico lícito Legezko salerosketa.

tranquilizante Lasaigarri, baregarri.

tranquilizantes mayores Lasaigarri nagusiak.

tranquilizantes menores Lasaigarri xeheak.

transgresor,-a Hausle.

transmisión Transmisio, kutsapen.

transmisión de enfermedades Gaixotasunen transmisio.

transmisión sexual Sexu bidezko transmisio.

trapicheo 1. [col.] Marrokeria, marro salmenta.
2. Xehekako salerosketa.

trastorno Nahaste, arazo.

trastorno mental Buru nahaste.

trastorno de conducta Jokaera(aren) nahaste.

trastorno de personalidad Nortasun(aren) nahaste, nahasmendu, arazo. *Atención a un subgrupo de pacientes con graves trastornos de conducta y/o personalidad que son especialmente conflictivos en la red asistencial = Osasun-sareari gatazka ugari ekartzen dion giza talde bat: jokabidean edota nortasunean asaldura larriak dituzten gaixoak.*

tratamiento Tratamendu, tratatze.

tratamiento ambulatorio Anbulatorioan tratatze, anbulatorioan hartzeko tratamendu. *El tratamiento ambulatorio es el más frecuentemente demandado = Gehienetan, anbulatorioan hartzeko tratamendua eskatzen dute.*

tratamiento clínico Tratamendu kliniko.

tratamiento con antídotos de las drogas Drogen antidoto(en) bidezko tratamendu.

tratamiento de mantenimiento Mantentzeko tratamendu.

tratamiento de urgencia Larrialdiko tratamendu, presako tratamendu.

tratamiento

tratamiento hospitalario Ospitalean tratatze, ospitalean hartzeko tratamendu. *El tratamiento en comunidad terapéutica y el hospitalario, anteriormente muy solicitados, han descendido de forma notable = Lehen, tratamendua komunitate terapeutikoan eta ospitalean jasotzeko eskaerak oso ugariak baziren ere, orain nabarmen urritu dira.*

tratamiento especializado Tratamendu berezitu, tratamendu espezializatu.

tratamiento médico Mediku tratamendu, medikuntza(ko) tratamendu, osabide, sendabide.

tratamiento psiquiátrico Tratamendu psikiatriko, psikiatriazko tratamendu.

U

UDI (Usuario de Drogas Inyectadas) IBDE
(Injekzio Bidezko Drogen Erabiltzaile).

unidad 1. Banako. *Una unidad corresponde aproximadamente a una caña de cerveza de 170 ml. o un vaso de vino de 60 ml. = [Banako] *Unitate bat, gutxi gorabehera kaina bat garagardo da, 170 ml., edota basokada bat ardo, 60 ml.*
2. Batasun. **3.** Unitate, leku, talde.

unidad de desintoxicación hospitalaria Ospitaleko desintoxikazioko unitate.

unidad de dispensación de metadona Metadona emateko unitate, metadona banatzeko unitate.

urgencia 1. Presa. **2.** Larrialdi.

uso Erabilera, erabiltze, baliatze.

uso comercial Merkataritza(rako) erabilera, salmenta(rako) erabilera. *El consumo con intención psicoactiva de los disolventes fabricados para uso comercial, comporta graves riesgos para la salud = Salmentarako ekoizten diren disolbatzaileak eragin psikoaktiboak lortzearren erabiltzeak osasun arazo larriak dakartza.*

uso compulsivo Erabilera behartu; bultzak erabilera.

uso

uso controlado Erabilera kontrolatu.

uso indebido Bidegabeko erabilera, bidegabe erabiltze.

uso infantil Haurren erabilera, hurrek erabiltze.

uso ocasional Aldian behinkako erabilera, aldian aldiko erabilera.

uso racional Zentzuzko erabilera.

uso recreativo Jolaserako erabilera, jaigirorako erabilera, olgetarako erabilera.

uso sistemático Erabilera sistematiko, sistematikoki erabiltze.

uso terapéutico Terapia(rako) erabilera.

usuario,-a Erabiltzaile, baliatzaile.

usuario,-a de droga Droga erabiltzaile, droga baliatzaile.

Usuario de Drogas Inyectadas (UDI) Injekzio Bidezko Drogen Erabiltzaile (IBDE).

V

valoración Balioespen, baloratze, balorazio.
valoración de necesidades Premien balioespen, beharren balioespen.

variable 1. Aldagarri. 2. Aldagai.
variables demográficas Demografia(zko) aldagaiak.
variables psicológicas Psikologia(zko) aldagaiak, aldagai psikologikoak.

131

veneno Pozoi, eden.

verborrea Hitz-jario, logorrea.

vértigo Zorabio, bertigo.

vía Bide.
vía intravenosa Bena barneko bide; zain barneko bide.
vía parenteral 1. [med.] Txegos aparatuaz kanpotik. 2. [Hab.] Zainetatik, zainen bidez.

vigilancia Jagoletza, zaintza.
vigilancia médica Medikuaren jagoletza.

VIH (Virus de Inmunodeficiencia Humana)
GIEB (Giza Immunitate Eskasiaren Birus)

vínculo

vínculo Lotura.

vínculo emocional Sentipenezko lotura, lotura emozional.

vínculo familiar Familia(zko) lotura.

violación Bortxatze, urratze, hauste.

violación de los derechos de otra persona Inoren eskubideak bortxatze.

virus Birus.

Virus de Inmunodeficiencia Humana (VIH)
Giza Immunitate Eskasiaren Birus (GIEB).

vitamina Bitamina.

vivencia Bizikizun, bizipen.

voluntad **1.** Borondate, nahimen, erabakimen. **2.** Borondate, nahi, gogo, erabaki.

voluntariado Boluntarioak, beren borondatez ari direnak. *Formación y asesoría a distintos mediadores sociales y voluntariado en general = Gizarte-bitartekari eta, oro har, beren borondatez ari direnentzako prestakuntza eta aholkularitza.*

voluntariedad Borondate, asmo. *Programas terapéuticos que precisan voluntariedad = Borondatea behar duten programa terapeutikoak.*

voluntario,-a **1.** [sust.] Boluntario. **2.** [adj.] Borondatezko.

voluptuoso,-a Sentsual, haragikoi, atseginzale; limurkor.

vuelta al consumo Kontsumitzera itzultze, kontsumora itzultze.

vulnerabilidad Zaurkortasun, ahultasun. *Estos cambios provocan inseguridad y vulnerabilidad en el joven = Aldaketa hauek gaztearengan segurtasun eza eta zaurkortasuna sortzen dute.*

vulnerable Zaurkor, ahul. *El/la adolescente es más vulnerable que la persona adulta al desarrollo de la dependencia a las drogas = Nerabea nagusia baino ahulagoa da droga mendekotasunari aurre egiteko.*

